Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anastasia Ormaetxea Ormaetxea Burutse, Txoko

Bermeo, Bizkaia (1927)



Aurkibidea

Biografia



Aurrekoetxean jaio zen, baina gerra aurretik joan ziren Ertzilla kalera, dorretxe albora, eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak bertakoak zituen, Gaztelukoak, armaginak eta errepublikazaleak. Lau neba-arrebatatik gazteena izan zen. Karmeldarren ikastetxean eta herri eskolan ibili ostean, 16 urtegaz kontserba-lantegietan hasi zen lanean eta horretan aritu zen erretiratu arte.

Zintak

BRM-085

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-12
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Elizondo, Iratze

BRM-086

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-12
- **Iraupena**: 65 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. 'Burutse' ezizena

- **Erref**: BRM-085/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Burutse ezizena bera aitari jarri zioten. Zer dela-eta jarri zioten azaltzen du. Amaren aldeko familiari Txoko esaten zioten eta hori da duen bigarren ezizena.

Transkripzioa
- Zuk ezizenik badekozu ala?
- Bai, 'Burutse'.
- Zelan?
- 'Burutse' Ta esango dotsut hori 'Burutse' zelan dan. 'Burutse'. Etor zien atziñeko zaharrak, han Gaztelun, neure aitxe kaso baten, Gaztelun dxaidxoku da. Ta han, Gaztelun, oten ezan dizen atziñeko zarrak enbarkaziñue zelan datozen ta, ba, ikusten sartzien. Etor zan, haur neure etxeko atxitxe edo “a saber”, ta hori etor zan txapel barik, haixik erunda txapela. Ta Bermioko gizonak beti erun dau txapela. "E! beitu fulano txapel barik” esaten “buru hutsien datoz", holan buru hutsien, buru hutsien bidxotza, holan da 'Burutse' izizena dakune. Holan ezan da atziñeko zaharrak. Gero, beste bat be bai, 'Txokotarra'. Ezan da nire atxitxe nire amuman atxitxe bueno, gizona. Ezan zan jokaridxe, hamen, bueno, ezkiñe guztidxetan Euskal Herridxen karta dxokuen da holan. "E, fulanok be auntxek txokue ein dxau" Hori da bigarren izizena: 'Txoko'. 'Burutse' ta 'Txoko'.

2. Bizi guztian kontserba-lantegian beharrean

- **Erref**: BRM-085/004
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:05:11. **Bukatu**: 00:07:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Etxean beti izan dira beharginak. Anastasia lantegian aritu izan da beti. Lantegian egiten zuten lana zein zen azaltzen du.

3. Lantegi desberdinetan behar egindakoa

- **Erref**: BRM-085/005
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:07:22. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Lantegi desberdinetan aritu izan da. 16 urterekin Legardarenean hasi zen eta Camposenean erretiratu zen 60 urtegaz. Kontserba-lantegi batetik bestera ez zuen alde handirik igartzen.

4. Tiragomarekin jota galdu zuen begia

- **Erref**: BRM-085/007
- **Iraupena**: 0:03:56. **Hasi**: 00:14:21. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Umetan begia galdu zuen mutiko batek tiragomarekin jota. Eskolara bidean zihoala kolarrean bertan jo zuen. Sasoi hartan begi bakarra izan arren berdin-berdin egin behar zen lan, ez zegoen gaur egungo aukerarik.

5. Kontserba-lantegiko funtzionamendua

- **Erref**: BRM-085/008
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:18:17. **Bukatu**: 00:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Lantegian egiten zuen lana azaltzen du erabiltzen zituzten makinen funtzionamendua azalduz. Behargin gehienak andrazkoak ziren.

Transkripzioa
- Ze biher eitten zan bertan, danetarik? Arraiñe garbittu, filetiek ein...
- Bueno, atune, atune lelau ba datorrenien atune ba ha atune goberna ein bihar dozu /bizu/. Tripiek eta gauzek ta zerin, burue kendu matxetagaz ta tiñetara etxa ta garbittu. Gero, makiñetara etxa bihar die /bide/ trontxoiek-eta eitteko, bai. Ta harek trontxoiek emoten ezan dotsazun /zatsun/ ba gatza tiñetan, ta gero, parrilletan plega. Gero, harek parrilletan ta bai zeretan bere gero, tosta ta tostaten danien ba, harek bajoiek-eta ein bihar duu /bidu/ imiñi lekutan hotzittuteko-ta. Hara, parorik be ez dau farbiken esatilez biharrien, ez dakozu parorik be. Gero emoten ezan doskun ordu laurdentxu, ordu laurdentxu meridxandie dxateko atsaldien.
- Iloba: Baie hori gero.
- Gero, bueno
- Iloba:Zaharra ezan zaranien.
- Baie aurduen, aurduen ezan da
- Iloba: Baie gaztetan ezuie okin
- Gaztetan ez da egon holakorik. Gaztetan ez da egon holan.
- Iloba: konta ordun sasoiko...
- Ez da gaztetan holakorik. Auntxek, auntxek dauz horrek gauzek, auntxek auntxek.
- Ta bihergin asko han?
- Bihar asko.
- Ta bihergiñek?
- Bihergiñek neurelez. Danak, danak bardin.
- Baie zemat ziñien?
- Asko, asko, asko.
- Andrazkuek?
- Ba, danak andrazkuk ta gizonak okitzen ezan dun lagunduten ta honek, latak-eta ataten ta bagoiek-eta lagunduten bagoietan-ta lagunduten, bai. Gizonak be bihar asko.

6. Emakumeek gutxiago kobratu; salazoia

- **Erref**: BRM-085/010
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:21:01. **Bukatu**: 00:23:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Gizonezkoek emakumeek baino gehiago kobratzen zuten. Kanpotar asko egon ziren bukaeran. Salazoia zelan egin behar den azaltzen du. Arduraduna beti izaten zuten adi, beraien lanari begira.

7. Otzarak gurdiz garraiatzen ziren

- **Erref**: BRM-085/012
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:23:15. **Bukatu**: 00:24:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
Gurdietan eramaten zituzten askotan otzarak lantegira ez baitzuten autorik izaten.

8. Bermeoko portua ebakuatu beharra

- **Erref**: BRM-085/013
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:24:41. **Bukatu**: 00:29:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Sekula ez da ibili portuan, nahiz eta gurasoak armaginak izan. "Saturno" izan zen beraien baporea. Gernikako bonbardaketaren ostean, portua ebakuatu behar izan zuten beldurrez; Bilbora erriora joan zen bere aita. Bere ahizpa aitaren bila joan zen, baina azkenean Bartzelonatik zehar Frantzian bukatu zuen.

Transkripzioa
- Ta portuen sekule ez zara ibilli, neskatille-edo?
- Ez, aiztek bai, armadorie ezan dalako nire ama.
- Ama?
- Ama ezan dot armadorie. Gure enbarkaziñue ezan da Saturno. Ama ezan da armadorie. Aitxe, esango dotsut horko, horko demandako gauzie. Hori Gernike herridxe erre dauinien, bonbardie zauinien Bermioko kofradiri emon zauen parte Bermioko enbarkaziñuei armadoriei emoteko parte harek enbarkaziñuek atateko portutik bonbardie eingo dauila igual Bermioko portue-ta. Entzun dozu? Nire amak geixo, nire aitxe geixo orduen, imie ezan nintzen ni, geixo ta "Ia ba! enbarkaziñugaz urten bihar

dozu /bizu/" Gure ama geixotute, konpletamentien geixotute bidxotza, aitxe ez dauela ikusko ta geixo dxun dalako ta armadorie ezan dan ta enbarkaziñugaz urten in bihar ezan dauie /bizandauie/ Bermioko portutik Bilboko erridxora. Entzun dozu? Hara dxun behar izan /bizan/ dauie. Ta gure ama geixo. Nire aiztie Isabel: "Ama, on zaitzez trankil. Neu dxungo nai Bilbora eta neuk ekarko dot aitxe etxera. Enbarkaziñue itzitzi dako bertan ta aitxe neuk ekarko dot etxera". Gure dozu /guzu/ siñistu aitxe lelau aillega ezan dala bera alabi baiño? Ez zauen topa aitxerik. Bertan erridxun ba asko, ta ez zauen okin sartziko entradarik bere. Franko okin dozu orduen [...] guztidxe okin dozu hor Bilbon ta, gero Bermiora allaga zien, baie. Ta zer ein zauen aiztiek? Bilbon barkue on zan ba esatilez, ba atateko jentie ta gerrie on zanelez mendidxek guzti, dana ezan dalez ba barkue preparata urteteko Bartzelonara. Ta nire aiztie bertan enbarka zan, entzun dozu? Bertatik, Bartzelonatik, Frantzira artire aillega zan ta beran barku bere gure ezan /guzan/ zauien faxistek honek, zerak, submarinuek bonbardietie ta hondora etxatie, baie zer bat on zan, barkuren bat on zan inglesa ze gure aiztiek kontaten ezan dauen. Ta berak hartun ardurie euren barkuna ta holan ez dauen etxa hondora. Berak albuen ala bera barkue frantzira arte. Ta halan zan, ta Frantzin matrimoniño batek gaztie eurek hartu ezan dauien ezan dalako katolikuek ezan dizelako, neba bat be okin dxauielako abadie ta nire aiztie eurek ein zauien hartu. Bakizu, refugiaduek ta honek zerak, eurek hartun ezan dauie alaba batelez. Aitxe aillega zan lelau beran enbarkaziñugaz gero etor zinalako herrire. Enbarkaziñoien dxun dizen guztidxek etor zilako danak herrire. Ta nire aiztie bertan Frantzin. Gero aillega zan gerrie sartun, normaldu danien-ta, gero aillega zan Frantzitik etxera, bai. Haulan pasa da, bidxotza.
-Ta zelan jakin zenduen zuek Frantzire dxun zala?
- Ba, eurek abiseta. Eurek, gero aiztie Frantzire aillega zanien eurek abise. Deitxutson amari-txe ta zelan, non dauen. Bai. Horrek gauze guztidxek pasa dxasku guri, bai. Gero Frankok, horrek, kriminalak! Kriminala ezan da baie, kriminala ezan da, bai. Ba pentsa! Geure portue bonbardieteko on die Gernike bonbardie dauienien. Ta nik ez daitz geure aitxe bere zelan salba zan, zelan salba zan.

9. Bonbardaketako garra

- **Erref**: BRM-085/014
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:29:02. **Bukatu**: 00:30:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Etxetik bertatik ikusi zuten Gernikako bonbardaketan piztutako garra. Anastasiak dio gurago duela ez bizi, berriro gerra bizi baino.

10. Errepublikako bandera erre; askok botoa erosten zuten

- **Erref**: BRM-085/016
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:30:16. **Bukatu**: 00:32:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:
Bere gurasoak errepublikazaleak ziren. Beldurrez errepublikako bandera erre zuen Anastasiak etxean horrelakorik aurki ez zezaten. Aitaren hainbat lehengusu batzokian ibiltzen ziren, abertzaleak baitziren. Askok botoa diruz erosten zuten.

Transkripzioa
- Gure ama ta ezan diz errepublikanuk, ama ta ezan diz errepublikanuk. Hon da ikurriñe hamen, gurin, errepublikanue.Ta etorten ezan dizelez, ba, zer barik etorten ezan dizelez, etxik eta errekonoziten etorten ezan dizelez ba zer ein nauen? hori errepublikanuen banderie ein nauen erre. Erre in nauen, suten in nauen erre. Orduen ikatza okitzen ezan dulez, ta ein nauen erre, ikurriñe bera ikurriñe errepublikanuna, bai. Etorri eitten ezan diez, etorri eitten ezan diez bidxotza.
- Ta ama ta aitte bidxek errepublikanuek?
- Bai. Bai. Baie gure aittek okin dotxuz /okintxuz/, bera seme bakarra ezan da, nire aitte, baie lehengusuek okin dotxuz /okintxuz/ ezan dizenak batxokikuek. Ezan diz, izatilez Sabino mandakuk ezan diz harek. Ta botue etxateko-ta lehengusuek neure aitteri: "Lengus, ia botorako ia guretxako boto bat edo, ia emoten bazun". Baie gure aitte bera be bai diruzaletxue ezaten ezan dalez dxakitzen ezan dau haren lehengusuek dirugaz erosten ezan dauien hau, botue etxateko haurei. "Beno, emoten bastazun neuri bere, pagaten bastazun" Egun baten, aittek neuri konta, gabonatan-ta igual, ama hildxe gero ezan da hori. Ta atziñeko gauzek igual berbetan dxanda gero: "Aitte" hauri pregunteten zantsaten "Aitte, zer da zerien" "Ba halan". Eurek itzen ezan dauien, dxakitzen ezan dauien honek e, zelan pagaten dauien diruek, zelan pagaten dotsoien jentiri haureri botue etxateko ta beran lehengusuek "Zer Elias, etxakozu bototxue guretzako, ela?" "Bueno dirue pagaten bazun, neuk be bai etxako dot" Baie errepublikanue ezan da gure aitte ta ama, ama gehidxau ezan da oniño.

11. Errepublikazaleak eta abertzaleak beti haserre

- **Erref**: BRM-085/018
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:34:50. **Bukatu**: 00:37:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Bere gurasoak errepublikazaleak ziren eta baita enbarkazioko beharginak ere. Abertzaleekin liskar asko izaten zituzten. Abertzaleek harrika egiten zieten askotan errepublikazaleei.

12. Euskadiko dirua balio barik

- **Erref**: BRM-085/019
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:37:44. **Bukatu**: 00:39:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:
Euskadiko dirua balio barik gelditu zen Francorekin. Anastasiak baditu etxean gordeta hainbat billete.

13. Pilarika egunean kuartelera arraina eraman behar

- **Erref**: BRM-085/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:43:17. **Bukatu**: 00:45:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Pilarreko Ama Birjinaren egunean, guardien egunean, lantegitik latak-eta eraman behar izaten zizkieten Erriberako kuartelera. Karabineroek ere bazuten beraien lekua.

Transkripzioa
- “Guardia de asalto”ak nortzuk zien?
- Bertokuek, hamekuk ezaten ezan diz “guarda de asaltuek.
- Baie zer alderditekuek?
- Hamekuek, kuartelekuek, nazionalistek ezaten ezan diz edo faxistek, honek faxistek ezaten ezan diz, faxistek! Francon demandokuek, bai. Gure koiñatuk bere ba kartzelatik libreta bertora zerera, kuartelera, dxuten ezan dan ta emoten ezan dotsoien /ezantsoie/n egunek edo hillie edo emoten ezan dotsoien /ezantsoien/ bertara presentateko, ta dxuten ezan da. Esango dotsut euren egunien, Pilarike egunien, gure fabrikera etxaten ezan dauie kartie euren egune zelebrateko, emoteko eureri gauzek eta geu dxuten ezan garizen atun latakaz ta antxoa latakaz, han dxuten ezan garizen kuartelera harek eruten. Geuri eruten ezan garizen eureri eruten, bai. Eskatu eitten ezan dotsu /ezantsu/ uzabari.
- Nun egon zan kuartela ba?
- Hamen Erriberan, Arantzaneko zera, Arantzak ezetu dau ordun ha zera, guardidxen zera, bai. Han Erriberan hon da. Ta haur bere, portun bere, karabiñeruen kasetie beti oten zan ta, hor, Artxanda behien, hor beko mandatxuen oten ezan da.
- Karabiñeruekin?
- Karabiñeruek oten ezan dizen hor.
-Karabiñeruekaz zelan?
- Karabiñeruek eta guardidxek ez diz ezan bardiñek. Karabiñeruek ezan diez ia portu mandakuek ezan diez. Ta hor guardidxek ezan diez ba bueno! Herridxe guztidxen dxaube ezaten ezan dizen horrek.
- Baie karabiñerukaz zuek ze tratu okitzen zenduen?
- Neu eguno bez karabiñeruekaz. Orain guardidxek, badiñotsut, geu dxuten ezan garizen fabriketik kartie etxaten ezan dotsoienien /zantsoienien/ uzabari edo enkargaueri geu dxuten ezan garizen entregaten eureri erregalue Pilarikan egune zelebraten ezan dotxu /zantxu/ horrek, ta fueta, ta fueta, ta fueta, ta geu dxuten ezan garizen.

14. Ama inudea izan zuen

- **Erref**: BRM-085/022
- **Iraupena**: 0:04:52. **Hasi**: 00:45:22. **Bukatu**: 00:50:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Bere ama inude moduan egon zen bi familiatan. Bere amuma inude "seca" egon zen, bular barik, umezain; bere ama, ostera, inude "fresca", bularra emateko. Nahiz eta armaginak izan, emakumeek ere lan egin behar zuten. Bermeoko andre asko joan zen inude.

15. Gerraostean goserik ez

- **Erref**: BRM-086/002
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:00:44. **Bukatu**: 00:02:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean ez zuten jateko arazorik izan, ogiaren falta baino ez. Mañu auzoan senideak zituzten eta irina ematen zieten taloa egiteko. Taloari eskerrak ematen dizkio, horrek asko lagundu baitzien. Jantoki sozialak ere bazeuden herrian, baina bera ez zen hara joaten.

16. Bernarda estraperlista

- **Erref**: BRM-086/003
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:02:33. **Bukatu**: 00:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Bere amak etxerako jenero batzuk (azukrea, olioa...) estraperloan erosten zituen. Bernarda izeneko andre bat estraperlista zen.

17. Don Bizente abade euskaltzalea

- **Erref**: BRM-086/008
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:12:16. **Bukatu**: 00:14:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
<p>Erdarazko liburuak zituzten eskolan eta dotrina ere erdaraz jaso zuten.

Kartzelan egondako abade bat, don Bizente, Santa Eufemiako elizan egon zen eta euskaraz irakatsi zien dotrina. Baina berriro ere atxilotu eta desterratu edo beste nonbaitera eroan zuten.</p>

18. Beti beharrean: egurretan, despeskan...

- **Erref**: BRM-086/013
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:18:22. **Bukatu**: 00:19:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Bere denbora guztia beharrean pasa duela dio, etxean zein lantegian. Artika auzoko errotetatik aurrera ere egur bila joaten ziren. Egurra buru gainean zein gurdietan makina bat bider ekarri ditu.

19. Isil-ostuan egur bila

- **Erref**: BRM-086/015
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:19:27. **Bukatu**: 00:21:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Egur bila sarritan joaten ziren Artikako mendira. Andre askok ekartzen zuten egurra buru gainean. Egurra isil-ostuan hartzen zuten. Basoetako jabeak askori txakurra botatzen zieten.

20. Despeskan

- **Erref**: BRM-086/017
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:21:14. **Bukatu**: 00:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:
"Despeskan" zer den azaltzen du. Eskularru barik egiten zuten lan. Azkordin asko izaten zituen eta atzamarrak asko kaltetu zaizkio. 15-16 urtegaz hasten ziren beharrean.

21. Hagina teilatu gainera

- **Erref**: BRM-086/025
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:31:31. **Bukatu**: 00:32:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Hagina jausterakoan, trapu baten bildu eta teilatura botatzen zuten berria eskatuz.

22. Gabon dotoreak

- **Erref**: BRM-086/029
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:37:02. **Bukatu**: 00:39:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Garai bateko Gabonak dotoreak zirela dio: bisigua, karakolak eta konpota ez ziren sekula ere falta. Anisa ere Gabonetan edaten zuten.

23. Aste Santuan elizan sartuta

- **Erref**: BRM-086/031
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:39:49. **Bukatu**: 00:40:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:
Aste Santuan elizan sartuta egoten ziren. Garizumako barikutan ez zuten okelik edo txerrikirik jaten.

24. Misio Egunak

- **Erref**: BRM-086/036
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:44:14. **Bukatu**: 00:45:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Misio Egunetan Bilbo aldetik etortzen ziren fraideak. Misioak Aste Santu bueltan izaten ziren.

25. Lehen jaunartzean oparitutako irudia eta argazkia

- **Erref**: BRM-086/042
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:52:53. **Bukatu**: 00:54:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Santa Eufemia elizan lehen jaunartzea egiterakoan, elizan irudi bat ematen zuten eta 1922. urteko irudi bat kamara aurrean dugu ikusgai. Lehen jaunartzeko argazki batzuk ere ikus daitezke.

26. Telebistako euskara ezin ulertu

- **Erref**: BRM-086/046
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:58:21. **Bukatu**: 01:00:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Anastasiaren ustez, Bermeoko euskara oso garbia da, ulertzeko errazagoa. Telebistako euskara ez du ulertzen.

27. Euzkadiko dirua grabatzen

- **Erref**: BRM-086/048
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 01:00:37. **Bukatu**: 01:01:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:
Gerra garaiko dirua, Euzkadiko dirua, grabatuz hartutako irudiak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com